



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2018ko otsaila · 348 alea

TOKIKOM

PATRIA
**DENETARIKO
IRITZIAK HERRIAN**



PIL-PILEAN 348

2019ko otsaila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan**
Jesus Tapia Sagarna
 - 6 **Begira** Txirrindularien plana
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez**
XXI. mendeko Korrikak
 - 18 **Erreportajea** Patria
 - 22 **Kirola** Boxeo, Itzulia eta frontenis
lehiaketa mixtoa
 - 24 **Kultura** Aratosteak, Nerea Mendia
eta Txistu-dantza eguna
 - 26 **Historia** Mugak
 - 28 **Sakonean**
Enrike Txurruka Larrañaga
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak,
oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
- 3 **Neuretik** Arianne Unamuno Loidi
Zaintzaren loraldia
 - 16 **Gutunak** Soraluzeko Sortu *Patria*
 - 16 **Hausnarketa** Patria
 - 17 **Zir(r)ika** Animo Pablo!
 - 17 **Puntua** Maria Olabarria *Greba*



**Pil-pilean herri
komunikabidea**

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus
Zuzentzailea
Leire Ginea

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)
Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.
Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua:
SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZETIKO
UDALA**

Zaintzaren loraldia



ARIANNE UNAMUNO LOIDI

Oraindik ez zen udaberria, baina zuhaitzen artetik agertzen hasita zegoen. Kimuak xamurtzen, txoriak algaraka, aittitta-amamak eserlekuetan eguzki goxotan. Haizea eta Xabier izebari eskutik helduta zihoazen, edozein barandautara igo eta oreka probatzeko prest. Izebak esan zien alai: "Begira! Norbait dago han aurrean uso eta kaipei jaten ematen. Gerturatu nahi duzue?". Xabiartxo korrika abiatu zen. Haizeak poza sentitu zuen eta, gero, galdera batek hazkura eragin zion belarri ondoan: "Izeba, zergatik izaten dira gehienetan emakumeak animaliak, pertsonak eta gauzak zaintzen dituztenak?". Izebari harridura eragin zion galderak eta ondoren poza, zaintzaz hitz egiteko aukera zuelako. Honela kontatu zion: "Bazen noizbait, duela urte asko, giza talde handi bat, elkar zainduz bizi zena. Behin, hainbat gizonek erabaki zuten beren bizimodua egin nahi zutela inor zaindu gabe, eta emakumeak behartu zituzten beraiei zegokien ardura har zezaten. Hala, gero eta gizonezko gehiagok hartu zuen bide hori eta, mendeak joan, mendeak etorri, belaunaldiz belaunaldi, emakumeei erakutsi zaie besteak eta gauzak zela zaindu, eta ardura hori hartu behar dutela ere bai."

Haizeak pentsakor jarraitu zuen eta izebaren kontakizuna eten zuen beste galdera bat sortu zitzaion: "Mutilek orduan ez dute zaintzeko eskubiderik?". Haizeak bazekien zaindua izatea zein atsegina den, baita bere katua eta txakurra zaintzeko irrikiz esnatzen zela ere; pentsatze hutsarekin kili-kiliak sortzen baizitzaizkion. Mixirik gru-gru egiten zion laztanak egitean; paseatzera eramatean, salto egiten zion gainera aurpegia miaztuz; begirada dizdiratsua eskaintzen zioten jaten ematen zienean; eta lotarako lekua atontzen zionean, Mixi atseginez kiribiltzen zen. Tristura sentitu zuen bere anaiarengatik, eta baita Mikel eta Unaxengatik ere. Ez ote zuten merezi berak sentitzen zuena sentitzea? "Noski baietz! Pixkanaka, emakume askoren nahimen eta indarrarengatik, eta gizonezko batzuen gogoarengatik, hasi gara zaintza partekatzen. Oso pixkanaka... baina neguari gailenduko zaio udaberria, Haizea".

**MUTILEK ORDUAN EZ
DUTE ZAINTEKO
ESKUBIDERIK?
HAIZEAK BAZEKIEN
ZAINDUA IZATEA (...)**

Jesus Tapia Sagarna

DOLMENEN IBILBIDEKO INDUSKETEN ARDURADUNA

UBANE MADERA

ARGAZKIA: FERNANDO OREGI

Jesus Tapia Sagarna (Astigarraga, 1973) Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurreko Sailaren arkeologoa da. 2016az geroztik bera da dolmenen Ibilbideko indusketen gidari eta arduraduna.

Lehen indusketak egin zituztenetik 100 urte pasa direnean, Elosua-Plazentzia Estazio Megalitikoan zaudete lanean. Zein berezitasun du esparru horrek berriro bertaratzeko?

Gure historiaurrea berreraikitze aro zaharrenetako aztarnategiak baditugu, eta Mesolito garaikoak (azken ehiztariak) ere badaude. Baina azken partekoak, Neolitokoak, ez daude asko, eta arbaso haien bizimodua zelakoa zen jakiteko ikertzen ditugu dolmenak. Euskal Herrian eta Gipuzkoan daudenak kontuan hartuta, Elosua-Plazentzia Estazio Megalitikoa da oso aztarnategi-multzo konpaktua, ondo mugatutakoa Urola eta Deba bailara artean. Gainera, urte askoan ez da ezer egin bertan, eta beti geratzen da aztarnaren bat. Beste faktore bat ere bada: bailarako erakundeek, (Udalek eta Debegesak...) interesa zuten egoerari buelta emateko, eta hori inportantea da. Inork ez badu lana bultzatzen, inork ezin du ezer egin.

21 monumentu megalitiko daude; Barandiaranek, Egurenak eta Aranzadik 14 indusi zituzten. Zeuek Gizaburuagakoa eta Irukurutzetakoak, besteak beste. Ze aztarna aurkitu dituzue?

Aurkitutakoak hiru multzotan bana ditzakegu: 1: Balore arkitektonikoa: Bertako monumentuak ez zeuden ondo deskribatuta. Aztertzen gabilta trikuharriak zela egiten ziren teknikoki, zela egiten zuten harlauzak lurrean sartu eta bata bestearen ondoan eusteko, eta tumulua zela ipintzen zioten gainean. 2: Materialak: Askok ez da azaldu. Ze trikuharri gehienak puskatuta zeuden. Jendea mendetan altxorren bila ibili da han. Emaitza politik eman dituenak, pieza gehien eman dituenak Gizaburuaga izan da: suharrizko izugarritzko pieza-multzo polita eman du (mozteko erremintak, gezi puntak...). Lurrontzien kasuan lortu da zati askorekin ia ontzi bat osorik muntatzea. Bestalde, aurkitu ditugu krematutako hezurak (erreta) ere. Ze, nahiz eta trikuharriak izan

hildakoak osorik sartzeko, denbora pasa ahala, erritoak aldatu eta kremazioa sartu zen. Fenomeno hori ez dugu ondo ezagutzen, eta Gizaburuagan lotzen dira hasierako erritua (inhumazioa) eta azken erritua (kremazioa). Metala ere azaldu da, eta horrek kokatzen gaitu historiaurreko azken unean, Metal Aroan. 3: Ingurumenari eta kronologiari begira, minerala, ikatz zatiak... aurkitu ditugu, baliagarriak berreraikitze "zelako paisaia zegoen garai hartan, zela gestionatzen zuten ingurua, lurak zela banatzen zituzten sorotarako, basoetarako...". Kronologiari dagokionez, datazio batzuk ere baditugu, uste baino zaharragoak, baina oraindik zalantza batzuk ditugunez, hobe itzarotea. Bidali ditugu lagin batzuk Ameriketara datatzera, Miami (Florida).

Aurkikuntzak non aztertzen dituzue? Aranzadiko egoitzan, eta materiala adituen eskuetan ipintzen da. Giza hezurak aztertze, bereizteko, zelako patologiak zituzten ikusteko... Lourdes Herrastik eta Paco Etxeberriak aztertzen dituzte. Erretako ikatzak, haziak eta gainerakoak Monika Ruiz Alonsori bidaltzen dizkiogu (Madrilen diharduen Bilboko doktore bati). Miriam Cubasek, berriz, zeramikazko ontziak aztertzen ditu. Hartzeko tresnak aztertzeaz neu arduratzen naiz: zelako piezak egin zituzten suharriarekin, nondik datorren suharria eta gainerakoak...

Noiz bueltatuko zarete mendi-gainera lanera?

Baimen administratiboak eskuratu bezain laster. Aurtengo proiektuaren zirriborroa iada eginda dago, tokatzen da zehaztea non eta noiz hasiko garen lanean, eta Diputazioak baimena ematean hasiko gara. Egokiena da udaberri-uda aldera bertaratzea, eguraldiarengatik, eta nahiko genukeelako eskolako umeei ere bertara bisitan joateko aukera zabaltzea.

Besterik nahi baduzu gaineratu... Nahiko genuke bertako jendea gehiago inplikatzeko indusketetan boluntario modura, eta bertan zer dagoen ezagututa, harro sentitzea. Adituoek guztien lana zuzendu egiten dugu, beraz, edozeinek parte har dezake, ez da ikasketa jakinik izan behar. Iaz, Bergarakoak, Soraluzekoak eta Donostiakoak ere izan ziren, ibili ginen zazpi bat lagun.



Txirrinduzaleen plana

ARGAZKIA: CARLOS DE COS MAIZTEGI

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Iazko Itzuliko irudia da. Herriko txirrinduzale koadrila ageri da mimoz muntatutako kanpamenduan, txirrindularien zain. Ez da ezer falta: botila bat sagardo, mini-parrillan erretako txorixo muturrak eta, garrantzitsuena, konpainia ona. Ez da plan txarra apirilaren 13an Ezozirako, ez horixe. Hori bai, argi ibili haima eta antzeko trasteekin, muntatzea ez da ematen duen bezain erraza...





M8an greba eta salaketa

Indarkeria matxistaren 38 lekukotasun batzen dituen erakusketa ikusgai izango da martxoaren 4tik 16ra: Ozen esan zan; kontakizun batzuk dira "oso larriak"; beste batzuk, ostera, "eguneroko bizimodukoak".

Deba eskualde-mailan zein herri-mailan askotariko eragileak elkartuta dabilta M8a prestatzeko lanean. Hala, mobilizazioak ere eskualdean zein herrian egingo dira.

Hori horrela, etzi, domeka, Elorregi "bailarako emakumeen martxaren" topagune bilakatuko duen ekintzarekin abiatuko dute M8aren bueltako egitaraua.

Soraluzen 11:00etan egin dute hitzordua, Estaziñoan, autoak antolatuta eta bertaratzeko.

Herrira etorrita, berriz, astelehenean hasiko dira ekimenak: indarkeria jasan duten hainbat soraluzetarren lekukotasunak erakutsiko dituzte udaletxeko pareteko lonetan. Gero, Ozen esan zan erakusketan jasoko dituztenak.

'Ozen esan zan'

Hain justu, martxoaren 4tik 16ra izango da ikusgai Ozen esan zan erakusketa, Korner Morea Elkarte Transfeministaren ekimenez

#Metoo goiburupean batutako indarkeria matxistaren 38 lekukotasunez osatuta. Olatz Sebalek, Korner Morea elkarte kideak, hauxe kontatu digu erakusketari buruz:

"Batez ere, familia edo bikote barruan gertatzen diren indarkeria kasuak dira. Batzuk oso larriak; beste batzuk, ordea,

eguneroko bizimoduan ohikoak diren eta normalizatuta dauden zapalkuntzak dira. Akaso ez gara jabetzen baina hor daude.

Bestetik, parranda giroan eta gazteen artean gertatzen diren bestelako indarkeria kasuak ere kontatu dituzte, parranda giroan normalizatzen direnak".

Egun osoko greba

Edozelan ere, ekimenik mardulenak, Martxoaren 8an eta bezperan egingo dituzte. Giroa berotzen hasiko dira martxoaren 7an, 19:00etan pintxo-pote morea eta 22:00etan, Plaza Berritik abiatuko den kalejira zaratatsua eginez. M8an bertan, berriz, greba izango da ardatza.

Martxoaren 8

- 12:00etan, **mobilizazio zaratatsua**
- 14:00etan **emakumeen bazkari autogestionatua**, Plaza Zaharrea (nork bere jana eramanda)
- Bazkalostean **kantaldia**
- 16:00-18:00 **Jolasak eta serigrafia tailerra**.
- 19:00 **Ekitaldia**, Plaza Zaharrea (irakurriko dituzte testigantzak)



M8 Plataformaren batzarra.

Euskal Herriko Mugimendu Feministaren deialdiarekin bat eginez, bost esparrutan oinarritutako greba-deialdia egin dute: pentsionistak, ikasleak, zaintza, enplegua eta kontsumoa. Eta parte hartzeko modu ugari daude: "Lantoki eta ikasgeletan greba eginda; hiri eta herrietako mobilizazioetara joanda; zaintzeari utzita eta hori irudikatzen amantala balkoian eskegita; gure eskualde edo arloan greba antolatuta; besoko morea eta txapa ipinita grebarekin bat egiten dugula adierazteko...".

Beraz, mobilizazioak eta salaketa uztartuko dituen egun osoko egitaraua prestatu dute (ondoko taulan). M8aren bueltan, besteak beste, martxoaren 22an Oneka emakume pentsiodunen plataforma aurkeztu eta hitzaldia egingo dute.

**EGUN OSOKO GREBA
FEMINISTA DA
AURTENGO
MARTXOAREN 8AREN
ARDATZA**

Autobus geltokia zubira berriz

Hastear dira autobus geltokia Zubi Nagusian ipintzeko egokitzapenak, Errabaleko urbanizazio-lanekin batera egingo baitituzte.

Domekan bukatu zen herri-galdeketa emaitza aintzat hartuta, Zubi Nagusian egokituko dute autobus geltoki nagusia. Hain justu, horrela jakinarazi zieten atzo, eguena, udal ordezkariak Errabaleko obretako arduradunei.

Iker Aldazabal alkateak esplikaturakoaren arabera, lur-azpiko edukiontzien egitura metalikoa kentzen hasiko dira eta gero zuloak beteko dituzte. Ondoren, hormigonatu egingo dute, autobusa bertan gelditu behar dela kontuan hartuta.

Gainera, markesina, argi-puntua eta panel informatiboa ipintzeko argindar linea bi ere sartuko dituzte. Hori bai, Patriaren grabazioen ondoren ipiniko dute markesina, telesailerako eragozpen delako.

"Demokraziak irabazi du"

Geltokia Zubi Nagusian kokatzea herri-galdeketa loteslea eginda erabaki du Udal Gobernuak. Hain justu, Errabaleko obren berri emateko batzarrean gaiak herritarren artean eztabaida eragin zuela ikusita hartu zuen herri-galdeketa egiteko erabakia.

Kontsultan 920 lagunek hartu zuen parte, eta hiru aukeren artean, 668 boto eskuratu zituen Zubi Nagusiak, 180 Errabalek eta 70 boto Baltegietak

Emaitzak ondo baloratu ditu Udal Gobernuak: "Lehen herri-galdeketa izateko, oso pozik gaude partaidetzarekin.

Orain arte udaleko gaiak erabakitzeko ez da inongo galdeketa egin, eta lehena izatean, ez geneukan erreferentzia zehatzik. Gure Esku Dagoren herri-galdeketa egin zenean, adibidez, 908 herritarrek parte hartu zuten, beraz, ontzat ematen dugu. Demokraziak irabazi du (...) Eta ikusi denez aukera emanez gero, herritarrek parte hartzen dutela, espero dugu etorkizunari begira ere herri-galdeketa gehiago egitea garrantzizko gaitan".

"Autokritika"

Oposizioko EHBildu koalizioak, berriz, bestelako irakurketa egin du "herritarren %92-a baino gehiago Udal Gobernuaren planteamenduaren kontra" (Baltegieta) azaldu dela azpimarratuta. Uste du gobernuko alderdiei "mezu triunfalista zabaldu ordez autokritika pixka bat egitea dagokiela, hainbat defizit agerian utzi dituelako galdeketa honek: batetik, herritarren nahiekiko urruntasuna; bestetik, erabaki tekniko simple bat kudeatzeko ezintasun nabaria (...) Herri-galdeketa hau ez zen izpiritu parte-hartzaile eta demokratiko batetik jai, baizik eta hauteskunde gertutasunaren aurrean Udal Gobernuaren aurpegia garbitzeko azken aukera bezala".

Kiroldegiko obren berri, antzokian

Kiroldegia handitzeko proiektuaren berri emateko batzar informatiboa egingo dute eguenean, otsailaren 28an, Herri Antzokian, 18:30ean.

Bertan parte hartuko dute kirol teknikariak, kirol zinegotziak eta proiektua idatzi duen udaleko arkitektoak. Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu bertara, batez ere, herriko kirol eragileak.



Solairu bat gehituko diote.

61 bisitari izan ditu Sologoenek

Urtarrilaren amaieratik otsailaren 9ra 61 bisitari izan ditu Sologoenko Zentral Hidroelektrikoak, Udalaren bisita gidatuak baliatuta. Gehienak soraluzetarrak izan arren, Barakaldotik, Oñatitik, Bergararik, Eibartik, ere etorri dira. Eta bertan izan da ere zentralaren emakida izan zuen familietako bateko kidea.



Soraluzeko Udalari lagapenez emango dioten SAPAko eraikina.

SAPAKo lehen eraikina herrirako

"Lau urteko lan luzearen ondoren" Udal Gobernuak lortu du hitzarmena adostea SAPAKo ugazaba nagusi den Jokin Aperribayrekin

SAPAKo lehen eraikina, lagapenez emango dio haren jabeak Soraluzeko Udalari. Hitzarmena adostu dute hori gauzatzeko.

Izan ere, esparru horretarako aurreikusitako proiektua bere osotasunean garatzeko itzaroten

egon barik (besteak beste, 90 etxebizitza eta garajeak eraikitzea dago aurreikusita), lehen zati horri dagokiona garatzeko pausoak ematen hasi nahi du udalak. Parkea egin nahi du, eta lehenengo honako lanak

egin beharko ditu: azterketa urbanistikoa egin, zehazteko partzela horretan zer dagoen eta zer egin daitekeen eta deskontaminazio eta eraipen proiektuak egin.

Eraikina bota aurretik aztertuko dute ea aukerarik baden haren egitura metalikoa aprobetxatzeko. Horrela balitz, estalitako parkea eraikitzeko baliatuko lukete hura.

Hitzarmena sinatzeko proposamena egiteaz bat, otsaileko osoko bilkuran Iker Aldazabal alkateak jakinarazi zuen udalak 175.000 euroko dirulaguntza zuzena jasoko duela Diputazioarengandik parkearen proiektua garatzen hasi ahal izateko.

Edozelan ere, gaiak ez zuen aho bateko adostasun politikoa izan. EHBilduk kontra bozkatu eta hitzarmena atzeratzea eskatu zuen, harik eta SAPAren lehen eraikinarekin egin beharrekoak zehatz-mehatz udalarendako ze kostu izan dezakeen jakin arte. "Zenbat kostatuko den aztertu, eta, behin datu hori eskuartean duzuenean, atzera ere ekarri gaia osokora eta alde bozkatuko dugu", esan zuen Unai Larreategi bozeramaleak.

Otsailaren 26an, martitzena, greba egingo dute eskolako jantokian

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak deituta, protestak iragarri dituzte Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban kudeaketa pribatua duten jantokietako langileek. Soraluzen ere jantokietako langileek bat egingo dute mobilizazioekin, eta, besteak beste greba iragarri dute. Martxorako, berriz, lau eguneko greba aurreikusi dute,

eta egoerak bere horretan segituz gero, apirilean, bost egunekoa.

Langileek esplikaturakoaren arabera, "2014. urteko hitzarmenean hobetzeko daude lan-baldintzak", honako hauek, besteak beste: ratio kopurua jaitea, Eusko Jaurlaritzako langileen soldatarekiko parekidetasuna, kontu

pertsonaletarako egunak izateko eskubidea eta beste".

Esandakoaren arabera, Ausolan enpresako mahai negoziatzailearekin batzarra egin berritan, enpresak "Eusko Jaurlaritzaren gain uzten du ardura guztia". Horrexegatik erabaki dute orain mobilizazioak egiten hastea, kontura daitezen jangeletako langileak "ikusezinak ez" direla. Horiek horrela, "denon babesa" eskuratu nahiko lukete protestaldirako.

Berritze-lan handiak Institutuan

Igogailua ipiniko dute Soraluze BHI ikastetxean, eta ondoko frontoiari aterpea; ikastetxean egingo dituzten berrikuntzetako batzuk dira horiek

Soraluze BHI ikastetxean, Institutuan, 887.963 eurotako inbertsioa egingo dute, ikastetxea eta ingurua berritzeko: igogailua ipiniko diote eraikinari, berogailuak berritu egingo dituzte, leihoak ere bai, eraikina margotu egingo dute kanpotik eta barrutik, eta alboko frontoia estali egingo dute.

Horrekin batera, dauden hezetasun arazoak konponduko dituzte, eraikina bera eta dituen zerbitzuak irisgarriak izateko

lanak egingo dituzte eta baita bestelako konponketak egin ere argindar-sisteman zein teilatuan.

Oporretan

Proiektua ALM Arquitectura enpresak idatzi du, Eusko Jaurlaritzaren esleipenez.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzak finantzatuko ditu lanok. Are gehiago, datozen hilabeteotan obrak egiteko adjudikazio-prozesua abiaraziko dute, lanak uda partean egin ahal izateko.

Izan ere, obrarik handienak ikasleak oporretan direla egin nahi dituzte. Behin hasita, aurreikusten dute hiru bat hilabete beharko dituztela lanik handienak bukatzeko. Beraz, lan batzuk ikasturtea hasita dagoela bukatuko dituzte. Edozein modutan, proiektuan zehaztutakoaren arabera, lan horiek ez dute ikastetxearen egunerokotasunean eraginik izango.

Iker Aldazabal alkateak obra horien garrantzia azpimarratzeaz batera, jakinarazi du lanok "lau urteko gestioaren ondoren" lortutako inbertsioari esker egingo direla eta agintaldi hasieratik izan direla Eusko Jaurlaritzako Olatz Garamendirekin, Hezkuntza sailburuordearekin, harremanetan berrikuntza horiek lotu nahian.

19 eguneko greba hasi dute egoitzan

Egoitzan ere bat egin dute ELA sindikatuak deitutako grebarekin, eta martxoaren 10era bitartean greba egingo dute langile askok

19 eguneko greba eta mobilizazioak hasi dituzte Mesedeetako egoitzako langile gehienek. ELA sindikatuak Gipuzkoako egoitzetako langileei egindako deialdiarekin bat egin dute, bada.

Hori horrela, batetik, otsailaren 20an hasi eta martxoaren 10ean bukatuko den greba egiten hasi dira. Bestetik, mobilizazioak egiten hasi dira. Horren erakusle, atzo, eguena, Plaza Berrian egin



Langileak protestan.

zuten elkarretaratzea egoitzako 20 bat langilek, senideek lagunduta.

Protesta luzea

Hilabeteak daramatzate protestan Gipuzkoako egoitzetako langileak, ugarituz joan diren mobilizazioak eginez. Eskatzen dutena da, besteak beste, 2016az geroztik izoztuta dituzten soldatak eguneratzea; langileen antzinatasuna kontuan hartu eta soldatan aitortzea; norbere beharretarako hiru egun hartzeko eskubidea izatea; egunean ordaindutako 20 minutuko atsedendia egin ahal izatea; eszedentziarako eskubidea izatea 10 urte bitarteko seme-alaben kasuan eta, lan-jarduna murrizteko eskubidea haiek 15 urte izan artean.



Maialen Elizburu (Pil-pilean), Jurdana Martin (Topagunea) eta Patricia Borinaga (Udala).

Etorri berriendako Harrera protokoloa

Harrera-zerbitzua eskaini, Harrera-gida eman eta euren beharretara egokitutako informazioa helaraziko diete herriko bizilagun berriei

Martxoaren 4an zabalduko dute Harrera-zerbitzua udaltxeko bigarren solairuan. Haren bitartez, bulego-zerbitzua eskainiko diete herriko bizilagun berriei, astelehenetan 10:00etatik-12:00etara, eta barikuetan 16:00etatik-18:00etara. Hiru hilabetez eskainiko dute zerbitzu hori proba modura.

Harrera-protokoloaren baitan dago sartuta Harrera-zerbitzua. Oro har, bizilagun berriei bizioki izango duten udalerrira ezagutzeko eta bertara egokitzeko bidean laguntzea da helburua.

Hutsunea sumatu

Hiru pauso izango ditu protokoloak: erroldatzera doazenean, hautazko galdetegia egingo zaie, lehentasunak edo beharrak jakiteko. Gero, herriko zerbitzu publikoetarako sarrera erraztuko zaie. Eta, azkenik,

Harrera-gida banatuko zaie. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta arabieraz dago, eta herriko informazioa batzen du, besteak beste: historia, kokapen geografikoa, hizkuntza, herrian dauden zerbitzuak eta baliabideak, eta abar.

Harrera-prosezuaren lanketa egin da Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartean sumatu zelako etorri berriendako harrera hobetu beharra zegoela: "Auzoko egitasmoaren ibilbidean, hutsune nabarmena zegoela konturatu ginen; etorri berrientzako harrera orokorrean, harrera linguistikoa eta harrera pertsonalizatua", esplikatu du Harrera-zerbitzuan arreta eskainiko duen Maialen Elizburuk. Horrela Euskaltzaleen Topagunearekin eta udaleko Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan jarri eta elkarrekin Harrera-prozesua landu dute.

Bizilagun gutxiago Soraluzen

Jaitsi egin da Soraluzen erroldatutako bizilagun kopurua. Iazko datuekin alderatuta, 2018an 3.885 herritar bizi ziren udalerrian, 2017an baino 34 gutxiago (2018ko abenduaren 31ko datuak dira). 2018an 24 ume jaio ziren, 11 mutil eta 13 neska. Baina hildakoak 41 izan ziren, 20 gizon eta 21 emakume. Bestalde, udalerrira 145 bizilagun berri etorri ziren bizitzera, baina, aldi berean, 220 alde egin zuten. Dena kontuan hartuta, bada, iaz baino bizilagun gutxiago izateaz aparte, 2017ko datuarekin alderatuta ere, jaitsi egin da kopuru hori, ze 2017an 3.890 bizilagun zituen Soraluzek.

154.000 euro Udalarendako

Gipuzkoako Finantzen Kontseiluak jakinarazi du Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren (UFFF) 2018ko likidazioa eginda, Soraluzeko Udalak 154.332 euro eskuratuko dituela. Iker Aldazabal alkateak jakinarazitakoaren arabera, martxoan 2018ko likidazioa egingo dute, eta horrek zehatz esango du zenbat diru dagoen erabilgarri. Ondoren, herrian dauden beharrei aurre egiteko baliatuko dute dirua, "inbertsioetara bideratuz". Zertarako izango den zehaztuta izan arren, pozik daude eskuratutakoarekin, jasoko zenaren gaineko aurreikuspena baxuagoa zen-eta.



Hainbat taldetako ordezkariak batu ziren batzordearen lehen bileran.

Osatu da Korrika batzordea

Herritar ugari batu da Korrika batzordearen lehenengo bileran. Martxoaren 12an jarri dute bigarren hitzordua.

AEK-ko ordezkariak 21. Korrikaren nondik norako nagusien berri eman zuten bileran: lelo nagusia –Klika egitea–, Txillardegiri omenaldia, ibilbide orokorra...

Soraluzera, apirilaren 13an helduko da Korrika, 14:00ak 14:30ak bitartean. Osintxutik etorriko da eta Ola aldetik sartuko da herrian. Santa Ana kalean barrena joango da, Kalebarren eta Gabolatsen zehar, Ezozibidetik Mendiola industrialdera, handik Maltzaga aldera joateko, Eibarrera bidean.

Korrikalariak eta ekimenak zehazten

Kilometroak saltzearekin batera, batzordeak lekukoa eroango duten talde eta ordezkarien zerrenda osatuko du eta lasterketaren bueltan

antolatuko dituen ekimenak ere koordinatuko ditu, Korrika Kulturala osatzeko.

Hori guztia batzordearen bigarren bileran zehaztuko dute, martxoaren 12an, 18:30ean, AEK-ren egoitzan.

Sei kilometro

Soraluzek sei kilometroko ibilbidea bete beharko du. Kilometro bakoitzak 450 euro balio ditu eta, ohikoa den moduan, lekukoa eroan nahi duten herriko talde eta erakundeen artean erosiko dira kilometrook, bakoitzak ahal duena emanez.

Soralucek liburua aurkeztuko du

Martxoaren 21ean, Soraluce kooperatibak bere bilakaera teknologikoa jasotzen duen *Etorkizunak jatorri bat du* izeneko liburua aurkeztuko du antzokian, arratsaldeko 7etan.

Liburuaren bidez, 1962an sortu zenetik gaur arte egin duen ibilbide teknikoa eta teknologikoa azaldu nahi dute eta balioa eman "etorkizuna eraikitze"ko.



Historia liburuaren aurkezpena, iaz.

Gaztetxean prozesua aurrera

Gaztetxeko guneak etorkizunean izan beharreko antolaketa funtzioak zehazteko prozesuak aurrera darrai. Lehen fasea amaituta, asteotan herriko taldeen iritzia jaso dituzte eta datorren astean norbanakoekin batuko dira berriz, orain arte egindako gogoetak praktikara zela eroan daitezkeen zehazteko.

XXI. mendeko Korrikak

EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIA: PIL-PILEANEN ARTXIBOA

2001ean hasi eta 2017ra bitartean egin den Korrika bakoitzeko argazkiak jaso ditugu bilduma honetan. Ilusioa ageri da argazki guztietan, eta horixe da hain zuzen hizkuntza batek biziberritzeko behar duen osagaririk garrantzitsuenetakoa, hiztunen gogo. Gogo horixe baita herritar asko KLIK egin eta eroaten dituen gure hizkuntzan bizitzeko hautua egitera. Besteak beste, horregatik da Korrika hain garrantzitsua, bi urterik behin gogo kolektibo hori berritu eta erakusten duelako. erakustaldi erraldoia egiten duelako.

Oharra: Norbaitek aurreko edizioetako argazkirik baleuka, gustura jasoko genuke Pil-pileanen, artxiboa edizio guztietako argazkiekin osatzeko.





GUTUNAK

Patria

SORALUZEKO SORTU

Herria aztoratuta dabil, telebistako serie bat grabatu behar dutela eta.

Soraluze aukeratu omen dute grabaketarako “90. hamarkadako herria” delako, “zahar itxurakoa”. Eta poztu egin behar dugu horregatik?

Gure herriak txukuntze bat behar du hirigintza aldetik, horretan ez dago zalantzarik. Gainera, orain, seriea grabatuko duen produktorak agintzen du Errabalen egiten ari diren obretan. Nahieran luzatu dituzte obren epeak eta euren esanetara moldatu. Gure galdera da: hori da plazentziatarrok merezi duguna?

Bestetik, serieak landuko duen gaia dago, Euskal Herriko gatazka politikoa. Baina, noski,

alde baten ikuspuntutik bakarrik.

Gatazkaren ondorioak oraindik ere konpondu gabe jarraitzen duten honetan -presoak, dispertsioa, atxiloketak, biktimak...-, beharrezko ikusten dugu gertatu denaren kontakizuna denon artean eta errespetuz egitea, eta ez euren burua biktima eta irabazle bakartzat dutenen gustura.

Hemen ez dago ez irabazlerik eta ez galtzailerik, baizik eta alde askotako sufrimendua eta herri baten historia, ertz askotarikoa dena.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Patria

Telesaila herrian grabatu behar dutela eta, iritzia galdetu diegu herritarrei.



MIKEL HERNANDEZ

Niri ondo iruditzen zait telesaila hemen grabatzea, esperientzia diferentea izango delako. Ni aurkeztu nintzen castingera, probatzearen, baina oraindik ez didate deitu. Diote istorioa pixkat fatxa dela eta ikusi egin behar gero zer kontaktzen duten.



IGOR AKARREGI

Nik faltan botatzen dut telesaila herrian grabatzearen inguruko eztabaida, batez ere, herri mugimenduen partetik. Nik uste dut beharrezkoa dela herritarren artean gogoeta egitea telesailak kontatuko duen errelatoa irabazleena izango delako, ez denona.

ZIR(R)IKA

ERREDAKZIOA

PUNTUA



MARIA OLABARRIA

**ANIMO PABLO!
ERREKUPERATU
BIZKOR!**



Greba

Tratu txarren bi salaketa; hizkuntz irakasle batek ikasle feminista bati histerika deituta beste ikaskideen aurrean umilatzea; erasotzaile matxista batek mugimendu feministako bi kideri denuntzia jartzea; ginekologoa aho-zabalik geratzea pazienteak harreman homosexualak dituelako; tabernetan eta dendetan erasotzaile eta jazartzaile matxistak onartzea.

Hiru hilabete baino gutxiago pasa dira 2019a hasi zenetik eta jadanik hori guztia pasatu da gure herrian, Plaentxin.

Eta oraindik M8ko greba zergatik egiten dugun galdetzen dute. Galdera hori egiten digun jende gehienak, beste aldera begiratzen du aipaturiko kasu bat bere begien aurrean gertatzen bada.

Eskerrak Plaentxiko mugimendu feministatik argi izpiak ere ikusten ditugun antolatzen ditugun mobilizazio jendetsuetan, bere babesaren ematen digun herritarrengan, eta ,batez ere, M8a antolatzeko sortu den 20 emakume inguruko plataforma potentean.

Eta zure ustez, ba al dago arrazoirik greba egiteko? Edo aurten ere etxean geldituko zara?



NIEVES BOUZO

Ondo iruditzen zait, herrirako irabazia lagatzen badu. Ez dut uste eragozpen handirik sortuko duenik. Orain dela urte batzuk, Allarizen (Galiza) grabatu zuten *La lengua de las mariposas*. Tabernan geunden eta bajuxeago berba egiteko eskatu ziguten, ez besterik.



MARIASUN AGIRRE

Ondo iruditzen zaidala esango nuke, herria ezagutarazteko balio lezakeelako. Jakin dut liburu batean oinarritutako istorioa dela, bi pertsonaren arteko harremana kontatzen duena, gero politikoki alde eta bestera banatzen direnena. Ez dakit askoz gehiago.

'Patria' grabatzeko lanak aurrera

Errabaleko obrek atzeratu egin dute 'Patria'-ren grabazioa, nahiz eta udalak alde aurretik eman zien haien berri. Kontuak kontu, egin dituzte figurante casting-ak, hasi dira kokalekuak 80.-90. hamarkadetara eraldatzeko dekoratuak eraikitzen eta zuzendaria behin baino gehiagotan bertaratu da

Testua eta argazkiak:
Ubane Madera.

Atzerapenarekin bada ere, badirudi laster hasiko direla *Patria* telesaila grabatzen. Ikus-entzunezkoaren produktorea den Alea Media-tik esan dutenez, grabazio-plana atzeratu egin zaie, Errabaleko obrengatik. “Guztia berregituratzen gabiltza. Obrak eragozpena izan dira. Egunetik egunera joango gara zer egin erabakitzen, obren aurrerapausoen arabera.

Badirudi bide onetik doazela, eta ea ez den konplikaziorik azaltzen. Obren erabat menpe gaude. Hala ere, hasierako planarekin aurrera segitzen dugu, eta bagabiltza (Soraluzen) hainbat lan egiten”.

Horren erakusle, asteotan sarriago izan dira Soraluze bisitatzen *Patria* telesailaren grabazioekin lotutako hainbat lan-talde. Esaterako, Felix Viscarret zuzendaria eta haren lan-taldea behin baino gehiagotan bertaratu dira. Lokalizazioen lantaldea, ostera, aspalditik dabil batera eta bestera, eta Txurrukeneko garaje batean dekoratuak eraikitzen dabiltzala ere jakinekoa da.

Zuzendarietako bat kalera

Batetik, Errabaleko obren eragozpenarekin topo egin dute, bada, *Patria* telesailaren grabazioek. Bestetik, jakinekoa da bestelako eragozpen handi batekin ere egin duela topo proiektuak: hasieran lanean ibili behar ziren bi zuzendarietako bat, Pablo Trapero bota egin zuten, eta, oraingoz, ez da haren ordezkorearen gaineko informaziorik argitaratu. Gauzak horrela, eta hasierako asmoak atzeratuta, ez dute Soraluzeko grabazioetarako datarik zehaztu.

HBO Españako Streaming Plataformako Komunikazio sailetik ez dute batera informaziorik helarazi. Oraindik ez dute ezta konfirmatu ere egin Soraluzean grabaketarik egingo denik. Diotenez, “proiektu bizia da telesailaren grabazioa; beraz, egunetik egunera aldatetak egon daitezke. Oraindik ez dago ezer zehaztuta”.

Herritar ugari castingetan

Kontuak kontu, castingak egin zituzten Batzokian: urtarrilaren 31n helduena eta otsailaren lehen uste eta gazteena. 250 heldu bertaratu ziren; umeenean, berriz, saioa 14:00etan bukatu beharrean, 15:30ak aldera bukatu zen; Batzokia gainezka izan zen une batzuetan.

Yael Moreno casting arduradunak Soraluzeako probetan esplikatu zuenez, figurante gehienak grabazio bakarrerako kontratatuko dituzte, baina izango dira batzuk gehiagotarako hartuko dituztenak. Esplikatu zuen jarraikortasun handiagoa izan ahal duela Soraluzeako jendeak, “bertan grabatu behar dugulako” (...) Talde txiki bat beharko dugu egun gehiagotan grabatzeko, adibidez, 5-9... egunerako. Baina oraindik ez daukagu kopuruei eta datei buruzko informaziorik”. Soraluzeako castingez gainera, figuranteak hartzeko probak egin zituzten Elgoibarren eta baita Donostian ere; izan ere, 1.000 figurante pasa kontratatu behar dituzte. Eta Pil-pilean herri komunikabideak jakin duenez, castinga egin zuten hainbat lagun hasi dira erantzunak jasotzen.

Non grabatu

Bestalde, castingak egiteaz gain, lokalizazioak ikuskatzen ari dira aspalditik. Pil-pileanek jakin duenez, liburuko atentatua Zubi Nagusian grabatu nahi dute, eta bertarako dekoratu zati bat probatzen ere ibili dira (argazkian). Horrez aparte, besteak beste, Zubi Nagusiko Ramon Lizarazu harategiarekiko interesa erakutsi dute, Ezoziko etorbideko hainbat atari aztertzen ibili dira, Pascual Churruca lantegiarekiko ere erakutsi zuten interesa eta apaiz-etxea ere aztertu dute, nahiz eta baztertu egin duten aukera hori, Luis abadeak esan duenez: “Dena begiratu zuten, baina ez zen egokitzen euren beharretara;



Zubi Nagusirako dekoratuak probatzen.

Herritarrak eta bisitariak Batzokian egindako castingetako batean.

BOLIA GUSTUKO DUTE ARRANO TABERNA IRUDIKATZEKO, ETA BATZOKIA, BERRIZ, PAGOETA IZAN DADIN

GRABAZIOETARAKO KOKALEKUAK 80.-90. HAMARKADETARA EGOKITU BEHARKO DITUZTE

azkenean esan zidaten kanpoko grabazioak hemen egingo zituztela, baina etxebizitza barrutik irudikatzeak estudio batean grabatuko dituztela".

Bolia eta Batzokia gustuko

Kasua kasu, bi tabernagatik erakutsi dute interesa. Batetik, liburuko Arrano taberna irudikatzeke Bolia gustuko dute. Mireia Gabilondok hauxe kontatu digu: "Joan den astean (otsailaren erdialdean) egon ziren 15 bat lagun argazkiak-eta ateratzen, eta esan zidaten grabatzen hasiko zirela martxoko hirugarren astean, baina ez dakitela hasiko diren Donostian edo Soraluzen. Denboraz abisatuko zutela, eta maiatza-ekainerako bukatuta egongo zela".

Bestetik, Batzokia ere gustuko dute, liburuko bigarren taberna nagusia irudikatzeke eta baita bestelakoetarako ere. "Taberna gustatu zaie nobelako Pagoeta taberna izateko. Esan ziguten lau egun beharko zituztela taberna 80-90. hamarkadako itxurara egokitzen, eta errodajea hiru bat egunekoa izango zela. Horrez aparte, txistularien eta abesbatzaren entsegu gelak ere interesatzen zaizkie, gauzak gordetzeke, margotze-lanetarako eta abar. Baina ez dute beste ezer zehaztu, ez datak eta ezta kontu ekonomikoak ere. Gutxi gorabeherako kalkuluak egiteko eskatu digute, baina besterik ez", kontatu du Jon Basaurik..

Zentzu horretan, antzerako informazioa helarazi diote Mireia Gabilondori. Hau da, taberna lehenengo itxuraldatu egin beharko dutela, gero grabazioak egin eta azkenik guztia lehenengo moduan laga. Boliaren kasuan, antza, oraindik kontu ekonomikoak lotzeke dituzte.

Era guztietako iritziak

Bestalde, Patria eleberrian oinarritutako telesaila Soraluzen grabatzeak aldeko zein kontrako iritziak eragin ditu. Castingean izan ziren herritarrak, adibidez, ilusioz bertaratu ziren, grabazioak bertatik bertara ikusi eta halako zerbaitetan parte hartzea "esperientzia berri interesgarria" izan daitekeelakoan. Arrazoi ekonomikoengatik ere bertaratu zen bat baino gehiago, ze kontratua eta ordainsaria emango diote figurante bakoitzari: 50 euro grabazio eguneko. Eta jakina, beste barik telebistan azaltzearen ilusioarekin bertaratu ziren beste asko, umeak batik bat.

Maila politikoari dagokionez, berriz, denetarioak dira iritziak. Izan ere, Euskal Herriko gatazka politikoa eta haren bueltan garatu zen borroka armatua da eleberriaren istorioaren ardatza.

Oraingo, birritan izan dute gaia aztergai Soraluzeko Udalean. Udalerriaren grabazioak egiteko baimena eskatu zuten udazkenean, eta baiezkoa eskuratu zuten, alderdi politikoen adostasunarekin.

Ondoren, otsailean atzera ere izan dute gaia mahai gainean. Oraingoan, Errabaleko obren hairra, haiek Zubi Nagusian egin beharreko grabazioetarako eragozpen zirela jakinarazi zioten-eta Udal Gobernuari, nahiz eta grabazioetako arduradunek obren berri lehenagotik izan.

Hori horrela, udal ordezkariak eta Errabaleko obren arduradunek egoera aztertu, eta obrei dagozkien lanik potoloenak, zehazki Zubi Nagusiari dagozkionak bizkortu eta ingurua grabazioak egiteko moduan lagatzeko aukera ikusita, lan horiek bizkortu eta aurrera egitea erabaki zuten. Gero, grabazioek iraun bitartean etena egingo dute obretan, eta haiek amaitzean egingo dituzte erremate-lanak.

Telesailaren grabazioek udalerrira ekarriko duten "onura ekonomikoa" erabakigarria izan zen Udal Gobernuaren erabakian. "Castingera joan ziren herritar haiek guztiak kontratatzeaz aparte, grabaketek 120 laguneko lan-taldea ekarriko dute. Horiek bertan hartu beharko dute kafea, bazkaldu... Gainera, kontratatu dute, adibidez, Soraluzeke enpresa bat garbiketarako egiteko, hainbat eraikin-etxe-lokal alokatuko dituzte... Hori oso garrantzitsua da gurea moduko egoera ekonomiko zaila bizi duen udalerrira batendako".



'Patria'-ko oraingo zuzendari Felix Viscarret (bizarduna) Zubi Nagusian, Soraluzeke egindako bisitetako batean.

Sortuk, berriz, zalantzan jarri du "poztekoa" denik telesaila herrian grabatzea. "Soraluze aukeratu dute 90. hamarkadako herri delako, zahar itxurakoa. Eta poztu egin behar dugu horregatik? (...) Gainera, orain, seriea grabatuko duen produktorak agintzen du Errabalen egiten ari diren obretan. Nahieran luzatu dituzte obren epeak eta euren esanetara moldatu". Bestalde, uste dute Euskal Herriko gatazka politikoaren kontakizuna "alde baten ikuspuntutik bakarrik" egiten duela nobelak, eta diote beharrezkoa dela "kontakizuna denon artean eta errespetuz egitea" eta ez euren burua biktima eta irabazle bakartzat dutenen gustura. Hemen ez dago ez irabazlerik eta ez galtzailerik, baizik eta alde askotako sufrimendua (...)"

EHBilduri dagokionez, Patriaren istoriarekiko iritziaren gaineratik "adierazpen askatasuna lehenetsita herrian horrelako grabaketa bat egiteko jasotako eskaerari" ezetzik ez ematea erabaki zuten. Eta balizko onura ekonomikoak aparte lagata, herritarrendako "informazioa garbi azaltzea" eskatzen dute, hau da: "Errabaleko obra maiatzean bukatu beharrean uztailean bukatuko dela argi esatea, hain zuzen ere Patriakoek obra erdian eten bat egitea eskatu dutelako; edota Errebaleko obretan egin beharreko moldaketen gainkostuak Patriakoek ordainduko dituzten arren, Udalak ez duela inolako dirusaririk jasoko obra moldatzeagatik, eta Udalak aurreikusitako diru kopuru bera gastatu beharko duela Errabalen".

EARI dagokionez, berriz, Bolia erabiltzeko baimena eman du, zalantzak izan arren: "Nahiz eta duda handiak izan jakinda nola erabil daitekeen pelikula (liburua eskuin muturrak hala erabili zuten) azkenean pentsatu genuen film hutsa dela, eta ez genekiela nola geratuko den pelikula, gidoia irakurri gabe, parte bateko errelatua sendotuko duela dirudien arren. Baina beste alde batetik, bada garaia errelatu guztiak plazaratzeko naturaltasun osoz. Eta ez Asier ETA Biok dokumentalarekin gertatu zen moduan, orduan egundoko eraso mediatikoa izan zuen filmak eta aktoreak betatu egin zituzten. Hori behingoz gainditu egin behar da, aktoreak euskaldunak dira, bertako askok egingo dute lan eta gure herria azalduko da. Azken batean filma da. Horri emango zaion erabilera politikoa ez dago gure esku. Baina guk ere gure bidea egin behar dugu".

**UDAL GOBERNUAK
SORALUZERI EKARRIKO
DION ONURA
EKONOMIKOA
NABARMENDU DU**

**SORTUK EZ DU
"POZGARRI" IKUSTEN,
ETA EHBILDUK
INFORMAZIO GARBIA
ESKATU DU**



Herriko boxeolariak: Ixa, Adur, Oussama eta Julen. SORABOX.

Lau herritar boxeoa jaialdian

Martxoaren 9an, boxeoa jaialdia ospatuko da kiroldegian. Tartean, herriko lau boxeolari igoko dira *ringera*.

Bosgarren urtez jarraian, Sorabox klubak boxeoa jaialdia antolatu du herrian. Guztira, zazpi borrokaldi jokatu dira, sei amateurak eta bat profesionala.

Ixa Rodriguezen esanetan, gero eta zale gehiago dago eta horregatik erabaki dute aurten ere jaialdia Soraluzen antolatzea. Dagoeneko saldu dituzte hirurehun sarrera.

Junior mailako neskak

Ixaren ustez, gaueko lehenengo borrokaldia izango da berezietakoa; izan ere, hamasei urtetik beherako bi neskak egingo dute borrokan: Nora getxoztarrak eta Aroa sevillarrak. “Ez da ohikoa horrelako jaialdi batean junior mailako bi neska borrokan ikustea, eta konbate berezia izango da”.

Soraboxeko boxeolariak

Gaueko gainerako borrokaldiak Sorabox klubeko boxeolariak jokatu dituzte. Sei boxeolari igoko dira *ringera*: Adur Odriozola, Oibar Artetxe, Oussama Hina, Julen Gallastegi, Oier Barrio eta Ixa Rodriguez bera. Oraingoz, bi borrokaldi dira zeharo lotuta daudenak: Adur eta Sohaib Abidarena eta Ixa eta Teona georgiarraren artekoa. Hain zuzen ere, azken borrokaldi hori izango da gaueko borrokaldi nagusia.

Ixa sasoi betean

Ixa sasoi betean dago: “Oso ondo nago, gero eta konfidantza handiagoa dut neure buruarekin eta irabaztera aterako naiz. Teona oso argala da eta uste dut ni indartsuagoa izango naizela, baina auskalo, edozer gauza gerta liteke”.

Itzulia Soraluzen sartuko da

Oraindik ofizialki esan ez badute ere, Pil-pileanek jakin du aurtengo Itzulia Soraluzen sartuko dela. Azken etapan izango da, apirilaren 13an, arratsaldeko 16:30ak aldera. Txirrindulariek Ezozu auzotik gora igo beharko dute, San Andresko bidegurutzera arte, gero, handik, San Andresen behera egiteko. Zaletuen esanetan, itzuli osoko igoerarik gogorrenetakoa izango da Ezozikoa eta erabakiorra gerta liteke azken sailkapenari begira.

Aurtengo Itzulia Basque Country otsailaren 27an aurkeztuko dute Zumarragan eta bertan emango dituzte ibilbidearen gaineko xehetasun guztiak.

Frontenis lehiaketa mixtoa

Martxoaren 16 eta 17ko asteburuan jokatu da aurtengo frontenis txapelketa. Zapatuan nagusien mailakoa eta domekan gaztetxoena. Nagusien mailan 16 bikoterendako lekua izango da eta lau taldetan banatuta, denek denen aurka jokatu dute, sailkapen partiduak goiz partean jokatu dituzte eta finalurrekoa eta finala arratsaldean. Dagoeneko izena eman duten bikoteen artean badira herrikoak, Euskal Herrikoak eta Espainiakoak ere (Errioxa, Burgos, Valladolid...). Gaztetxoan txapelketa domeka goizean jokatu da eta ez da parte hartze mugarik izango.



Ramon Lizarazu

ERRABAL KALEA 24
TEL. 943 75 91 30

Behar dutenak
harritara
Euskal Oleria

MABEL
ILEBPAINDEGIA

- Berantziako keratina tratamendua
- Deglaxioa
- Re-austriarik gabeko permanentea
- Makilajia
- Manikura erdiraunkorra
- Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89



Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Ettxeko tritxoak
Souflera

Tel.: 943 75 10 02



ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, punta puntuko teknologekin lan egiten dugu. Cad-Cam sistema berritatuak erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUCE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.iz@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenerik, ostiratera
9:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



ARRANO
taberna

Etan! eta gazteak etxeko pintxoak

Etxeburueta 6
Telefonoa: 943 75 24 09



BOLIA
TABERNA

Pitxoak, ardoak, kombinatuak
Gazte-giroko festa



TXURRUKA
JATETXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

amaita dekorazioak industriala

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30



AURREZTU ENERGIA

Berota ura eguzki izpiekin edo airearekin

fontaneria
San Andres
Iturgintza

629 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



Hortz klinika

Javier Alonso
Mestre Odontologiko
R.Z. 48.001.001

Katia Guñe
Odontologiko
R.Z. 48.001.048

27 urteko esperientzia

Minik gabeko anestesia, odontologia orokorra, grixas trinko eta mugikorra, odontopatia, ortodontia, implanteak, estetikoa...

Errabal 1 - Tel.: 943 75 10 13



Kontulan

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, sitargenak - Administrazioa lanak
Traffikoko burokratia - Lan-arloko aholkularitza
Enpresen konstituzio/desbuzioak - Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. euk. 20590 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



Txoko

Eguneko menua, plateak kombinatuak, hamburgerenak, ogitarteak, rasiak, pizzaak, gazaria...
Esker guztiak egiten dira
Tel. 943 75 17 88



KLB6

Kalebarrak 6
943 67 71 26

Multzo-erakunde moduagatik

Facebook icon

Pepe Jimeno
ISOLID
MAYSON SCOOTER
VERO MODA



sutarako egurra, salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

img. 625 71 34 08



Euskalzaletasunaren alde:





lazko aratusteetako argazkia. ARTXIBOA.

Mozorrotzeko sasoia heldu da

Martxoaren 1 ean hasita, dantza, musika eta mozorro-lehiaketak izango dira herrian.

Egunotan, jantzi eta mozorro mugimendu handia dabil herrian. Askok, aratuste batzordeak proposatutako gaiaren bidetik, ipuinetako pertsonaiez mozorrotuko dira: Peter Pan, Alizia, Txanogorritxu, Tartalo, Ehun eta bat dalmata, Harry Potter...

Azken urteotako ohiturari jarraituz, barixaku arratsaldean abiatuko dira aratusteak herrian. Plaentxi herri ikastetxeak emango die hasiera, Euskal Aratusteen ekimenarekin. Ostean, Urrats Dantza Taldeko dantzariak aterako dira kalez kale, dantza-saioak eginez.

Zapatua, egun nagusia

Hurrengo egunean, zapatuan, eguerdian hasiko da jaia. 12:00etan, Kontzejupean, photocalla zabalduko dute,

mozorro-lehiaketan parte hartu nahi dutenentzako, eta 13:00etatik aurrera, Akelarre txaranga ibiliko da kaleetan. Iluntzean, dantzaldia izango da Joselu Anaiak talde ezagunak girotuta.

Gauean (22:30etik aurrera), Bertsio Gaua antolatu dute Gaztetxean. Antolatzaileek laguntza eskatu dute Gaztetxeko barran txandak betetzeko.


Martitzenean dantza

Arratsaldeko 17:30ean, gaztetxoek dantza-erakustaldia eskainiko dute kiroldegiko frontoian. Ondoren, arratsaldeko dantzaldia hasiko da Plaza Zaharreko karpan eta gaiteroak kalez kale abiatuko dira. Azkenik, 20:00etan, mozorro-lehiaketaren sariak banatuko dituzte.

Mendia pelikula espainiar batean

Nerea Mendia aktoreak filma espainiar batean parte hartu du, Carmen Maura, Alex Garcia, Clara Lago eta beste hainbat aktore espainiar ezagunekin batera.

Gente que viene y bah du izena filmak eta urtarriletik dago ikusgai estatu osoko zinemetan. “Eszena laburra da, baina gustura nago egindakoarekin. Niretzat garrantzitsua da”.



Filmeko eszenan, kamarera paperean.

Txistu-dantza eguna

Txistulariek eta dantzariak bat egingo dute martxoaren 23an antolatu duten Txistu-dantza egunean. Egun osoko egitaraua prestatu dute: 10:00etan txistularien kalejira, 12:30ean dantza-poteoa, 15:00etan bazkaria elkartean, eta arratsaldean, kalejiran aterako dira kalez kale. Herritarrek ere gonbidatuko dituzte dantzara.

Soraluzeko Euskaltzaleen Elkartearen

BATZAR NAGUSIA

Eguna: Martxoak 23, zapatua

Ordua: 10:30-12:30

Lekua: Antzokia

Gai-zerrenda:

- Elkartearen diru-kontuak eta jarduera
- *Euskaltzaleen mugimendu berritura bidean* ikusentzunezkoa eta gogoeta

Elkarteko bazkideez gain, edozein euskaltzalek har dezake parte batzarrean

EGITEKO GOGOAK BATZEN GAITU!



EGUNEKO PLANA:

- 12:45ean irtengo gara Soraluzetik (Estaziñoko geltokitik), bidean elgoibartarrak hartu eta elkarrekin Astigarragako Larrante sagardotegira joateko
- Nahikoa jan eta edan ondoren, Astigarragara jaitsiko gara parrandara
- Gauerdiko 00:00etan autobusa hartuko dugu Soraluzera bueltatzeko

Eguna: martxoak 30, zapatua

Prezioa: 40 € / 45 € bazkide ez direnek (autobusa eta sagardotegiko jan-edana)

Izena emateko: pilpilean@pilpilean.eus / 688 61 36 98

Plaza-kopurua: tokia gorde dugu 25 lagunentzako

TXOTXXX egiteko gogoak batzen gaitu!



Aldapa abantaila bihurtua

MUGENA INGENIARITZA-LAN HARRIGARRIA DA, MODU JASANGARRIAN EGINA

SORAPEDIAKO LAN-TALDEA

ARGAZKIAK: A. MAIZTEGI ETA E. UNAMUNO

Begiratu Soraluze inguratzen duten mendi magaletara eta laster atzemango dituzu ehunka orban txiki zelaietan.

Norbaitek pentsa lezake, mendiari, berez, modu naturalean, sortu zaizkion zimurrak direla, baina ez da hala, gizakiek eginak dira, nekazariak mendetan zehar lursail aldapatsuak landu ahal izateko neke handiz eraiki eta mantendu dituzten egiturak: mugak.

Ingeniaritza-lan harrigarria

Soraluzekoa ingeniari-taldea harrigarria da, gizakia ingurune naturala bere beharretara moldatzeko (modu jasangarrian) egin dezakeenaren adibide ikusgarria. Izan ere, Soraluzeko maldak mugaz eta hormaz josita daude. Zelaietan ageri dira batzuk, baina ezkutututa daude beste asko, azken hamarkadetan landatutako pinadiak estalita. Sinesgaitza badirudi ere, garai batean sail horiek denak labratutako soro ziren, eta baliatzen ziren garia, artoa, baba eta abar landatzeko -historia iturrien arabera, basoak soro bihurtzeko prozesua IX. eta XIII. mendeen artean gertatu zen-. Emaitza: garai hartan, gaur ez bezela, Soraluze ia buruaskia zela elikadurari zegokionez.



Oraindik ere muga askok bere horretan diraute zelai eta baso askotan.

Inguru aldapatsuetan, euri asko egiten duenean, lurra ezin izaten du ura behar bezain arin xurgatu, ondorioz, urak lurra eroaten du, azpiko haitza agerian utziz. Hain zuzen, hori gertatzen da Soraluzen.

Hori dela eta, herriko baserriarrek lan handiak hartzen zituzten mugak egoera onean mantentzeko. Urtero, udaberrian, mugaren azpian pilatzen zen lurra otarretan bildu eta mugaren gainera

XIX. mendeko testigantza

Lucien-Louis Landek halaxe jaso zuen *Basques et Nafarrais* izeneko liburuan (Paris, 1878):

Eibartik aurrera joanda, aurki heltzen gara Placencia-ra...

Bertako lurra, oso malkartsua eta ez oso emankorra, alai eta berdea da nekazaritzari esker. Ume txikiek, egunean zehar erreka zuloetan geratzen den hondarra jasotzen dute ihi-otarretan; eta lur hori, kontu handiz eroaten dute mendiko bazterrik gordeenetara: eta han, ureztatzen dute eta zapaldu, eta harresi txikiak eraikitzen dituzte ondo gorde dadin, eta horrela, bidearen alde bietan ageri dira mendi magaletik zintzilik daudela diruditen lorategiak, zeintzuetan artaleak ere banan-banan sartzen dituzten. Halakoxea da Bergara arteko paisaia...

eroaten zuten. Horixe zen Soraluzeoko baserritarrek halako lur aldapatsuetan bizitzeagatik ordaindu behar izaten zuten errenta.

Kanalizazio-sistema erraldoia

Ostera, mugak ez ziren lurrari eusteko sistema erraldoiago baten ageriko egiturak baino. Izan ere, mugekin batera, kañuak ere eraiki zituzten soroen azpian -metro bete edo gehiagora, lurra lantzerakoan eragozpenik sor ez zezaten-. Kanal horien bitartez, euri-urak bideratzen zituzten inguruko erreketara eta eragozten zuten euria egiten zuenean urak lurra eroatea.

Aldundiak argitaratutako datuen arabera, Soraluze da Gipuzoako herririk aldapatsuena. Soraluzeoko mendi magalek lur-geruza oso mehea dute arbelaren gainean; horrenbestez, eremu euritsua izanda, urak mendian behera eroaten du soildutako lurra. Halabaina, Soraluzeoko baserritarrek jakin zuten arazo horri errotik heldu eta irtenbidea bilatzen. Itxura batean desabantaila zirudiena, abantaila bihurtu zuten: aldapa. Izan ere, urak behar bezala bideratu ostean, lur aldapatsuak lauak baino baino bizkorrago izaten dira prest labrantzarako, hezetasun gutxiago pilatzen delako eta eguzkiak lehenago lehortzen dituelako.



Harria bistan duten mugak, Kortako etxe azpiko lursailean.

Mugak eraikitzeko teknika

Ezagutza eta teknika ona beharrezkoak ziren mugak egiteko, masarik gabe, harriak elkarri lotuz altxatu behar baitzen horma. Hargatik, baserritarrek trebeenek jarduten zuten langintza horretan, gainerako baserritarrekin auzolanean, noski; garai hartan beste lan askorekin egiten zen bezala: uzta jasotzea, bidegintzan...

Hainbat altueratako mugak eraikitzen zituzten, bete beharreko funtzioaren arabera. Dirudenez, altuerarik handiena zuten mugek baserrien arteko lur-sailak bereizten zituzten.

Luzeeran ere ezberdinak ziren, batzuk luzeagoak eta beste batzuk motzagoak. Inoiz ez alde batetik besterainokoak, tartean pasabidea laga behar baitzuten, soroetan gora eta behera ibili ahal izateko. Zenbat eta aldapa handiagoa, orduan eta txikiagoa mugen arteko distantzia, gehiegizko bertikaltasunik har ez zezaten.

Noski, teknika hori ez da Soraluzean erabilitakoa bakarrik. Euskal Herriko eta munduko beste hainbat lekutan ere erabili izan dute: Pirineoetan, Espainiako lurralde askotan, Provenzan, Ligurian, Kroazian, Cretan, Egeo irletan, Afrikan, Andeetan, Himalayan... Gaur egun, halako egiturak mantendu dituzten tokirik gehienetara bisitariak joaten dira trumilka, paisaia ikusgarri horiek euren begiz ikustera.

Gurean ez da halakorik gertatu, ezta gertatuko ere. Oro har, pertsona gutxi batzuek izan ezik, ez diegu eman egitura horiei behar besteko baliorik, eta, ondorioz, gaur egun, babes eta zaintza faltaz, mendeetan zehar Soraluzeoko lurrak emankor bihurtu dituen egitura miresgarri horiek guztiak desagiten ari dira poliki-poliki. Besterik ezean, orriotara ekarri nahi izan ditugu Lucien-Louis Landeren kontakizun ederra eta Esteban Laskurainek emandako argibide zehatzak.

Enrike Txurruka Larrañaga

BERGARAKO MUSIKA BANDAKO ETA ORKESTRAKO ZUZENDARI IZENDATU DUTE

UBANE MADERA

ARGAZKIAK: GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA
ETA ENRIKE TXURRUKA

Enrike Txurruka (Soraluze, 1973) izendatu dute Bergarako Musika Bandako eta Bergarako Orkestrako zuzendaria.

Soraluzetarrak ez du batere ardura makala hartu bere gain: 187 urteko ibilbidea duen banda bateko 60-70 musikari pasa izango ditu batutapean, eta 33 urteko ibilbidea duen orkestrako beste horrenbeste musikari ere bai.

Bi kasuetan, Alfredo Gonzalez Chirlaqueri hartuko dio erreleboa Txurrukak. Eta hori ere ez da kontu makala. Musikari familiatik eratorritakoa, Gonzalez Chirlaqueren aitaita, aita eta gero bera izan dira-eta azken urte luzeetan Bergarako Musika Bandaren gidariak. Bergarako Orkestra, berriz, Alfredo Gonzalez Chirlaquek sortu eta bera izan da beti zuzendaria.

Gauzak horrela, bada, esan liteke aurrerantzean Enrike Txurruka izango dela Bergarako musika sinfonikoaren gidaria.

Erabateko konfiantza

Hori bai, ardurazko kargu horiei aurre egingo dio Chirlaquen beraren eta musika bandako musikari-kide guztien konfiantza duela jakinda. Bestelako hautagaien aurrean, eta Musikeneko adituak ere tarteko zirela, soraluzetarra aukeratu dute zuzendari izateko,



Alfredo Gonzalez Chirlaque eta Enrike Txurruka urtarrileko kontzertuan. GOIENA

pertsonarik egokiena dela konbentzita. “Oso pertsona maitatuta eta errespetatua da bandan. Zeregin horretarako gaitasun nahikoa badauka, eta edozertarako alboan izango nau”, esan zuen, besteak beste, Chirlaquek.

Beraz, hori bere alde du Txurrukak. Eta bere alde izango du baita bere nortasunaren adierazgarri duen izaera "saltseroa", musikarekin orain arte egindako ibilbidean erakutsi duen moduan.

MARI KARMENEKIN, INES MARIREKIN ETA TXISTUA JOTZEN HASI ZEN MUSIKAN ENRIKE TXURRUKA

Txistua...

43 urte bete arte Enpresa Zientzien arloan lanean aritu den arren, “bizi osoan ibili” da musikaren munduan, “saltsan”. Izan ere, Enrike Txurrukak musika barru-barruan darama.

Umea zela, jaioterrian hasi zuen ibilbide musikala. “Asko moduan hasi nintzen Mari Karmenekin (Olaizola), Ines Marirekin (Maiztegi), txistuarekin...”.

Ez du oso argi zein izan zuen lehen instrumentua, “txistua edo Ines Mariren melodika”. Hori bai, behin musika bidelagun hartuta, eskutik joan dira biak leku guztietara ordutik, “musika afizioa baino gehiago” delako Txurrukarendako. Horren erakusgarri da Bergarara 18 urterekin bizitzera joan arren, oraindik txistulari zebilela



Enrike Txurruka Soraluzeko txistulari taldearekin. TXURRUKA



Enrike Txurruka, Iñigo Alberdi eta Eduardo Txurruka. TXURRUKA

Soraluzen. Edo gauean pelikula bat ikusi beharrean konposatzen eta moldaketak egiten pasatzen duela denbora, “hainbat moldaketa eta konposaketa badituz dagoeneko”. Adibidez, “Bilboko Korral Elkarteko gazteen abesbatza den Euskeria Abesbatzak, Euskaltzaindiaren mendeurrenako kontzertuetan abestuko dituen abestien moldaketak egin dituzt. Arantzasun estreinatutako genituen Donostiako Orfeo Gaztearekin batera, eta, orain, euskal hiriburu guztietan eskainiko da kontzertu berbera, Euskeria Abesbatza eta tokian tokiko beste abesbatza batekin batera”.

Perkusio-jole

Esan liteke saltsero izaerak “markatutako” bidetik segitu zuela Bergaran ere ibilbide

musikala. “Pianoa jotzen hasi nintzen, eta Plazentzian ez zegoenez piano ikasketarik, Bergarara joan nintzen ikastera”, dio .Urteekin piano ikasketak egin zituen, instrumentu horrek “musika bere osotasunean ulertzeko” gaitasuna ematen diolako.

Baina bizkor gaineratu du "instrumentu bakoitzak bere grazia" daukala. Eta esperientziaz dio hori, ondo ezagutzen baitu musika tresna asko: txistuaz, pianoaz... gain, besteak beste, perkusioarekin ere ondo asko moldatzen da Txurruka, Bergarako Musika Bandan diharduen 30 urteetan perkusio-jolea izan da-eta: “Begarako Musika Eskola sortu zenean ez zegoen perkusio ikaslerik eta horregatik hasi nintzen perkusio-jole.

Lehenengo orkestran hasi nintzen eta gero bandan”.

500 ikus-entzule

Datozen urteotan, baina, perkusiorako makilen ordez, batuta hartuko du Enrike Txurrukak.

Eta tinko baina malgu eutsiko dio batutari, Bergarako Musika Bandan “iraultza” egiteko asmo barik, baina banda eta haren musika gizartearen eraldaketetara egokitze “erronka” ipar hartuta.

“Hilero egiten dugu kontzertu nahiko handia, aurreko domekan, adibidez, 500 bat ikus-entzule bertaratu zen. Alde horretatik, nahiko osasuntsu dago kontua. Baina, publiko orokorra nahiko nagusia da, eta publiko berriarengana heldu nahi dugu”.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Marta Ayora
Otsailak 15.
Zorionak etxeko
poliitenerari! Segi gure
bizitzak alaitzen!
Etxekuak.



**Mikel Layza
Albisua**
Otsailaren 17an, 8
urte. Zorionak
familia guztiaren
partez. Muxu bat!



**Ilyas Ouhammi
Boussagui**
Urtarrilaren 12an, 9
urte. Zorionak!
Etxekoen partez.



Nerea Atxotegi
Urtarrilaren 18an,
20 urte. Zorionak
Nerea! Segi oin arte
moduan zure
umoriakin txoko
danak alaitzen.
Etxekuen partez.



**Ainara Gonzalez
Armengol**
Otsailaren 27an, 4
urte. Zorionak! Ondo
pasatu zure
egunean, etxekoen
partez.



Dihan Larrañaga
Martxoaren 4an, 13
urte. Zorionak! Tio
Jon eta etxekuak.



Unai Calles
Otsailaren 7an 10
urte. Zorionak!
Tio Jon eta
etxekuak.



**Eric Rodriguez
Herrera**
Martxoaren 3an.
Zorionak! Ama eta
etxeko guztien
partez.



Izer
Martxoaren 3an.
Zorionak! Etxeko
guztion partez.



**Aiur eta Eñaut
Valderrey**
Urtarrilaren 26an,
urte bat eta otsailaren
batean 8 urte.
Zorionak eta muxu
bat! Guraso eta
aiton-amonen partez.

ESKELAK

OROITZA

**Pili
Larrañaga Orbea**



Otsailaren 11an hil zen, 69 urte zituela.

Zure bila nebilela, kantauri tsasoak laztandu
eta hego haizeak kulunkatu ninduen.
Berriz ere etxean ginen.

Sendia.

OROITZA

**Victoriano
Goenaga Benito**



Otsailaren 14an hil zen, 86 urte zituela.

Ez agurrrik, ez adiorik, gero arte baikik.

Etxekoak maitasunez.

JAIOPERRIAK



Oihan Gallastegi Nogales
Urtarrilaren 21ean jaiotzen zen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Jose Maria Larrañaga Leturia
Victoriano Goenaga Benito

Jaiotakoak
Oihan Gallastegi Nogales

OHARRA

Deia herriko trikitilari eta pandero jotzaileei
Ekainaren 1ean, Debagoienako trikiti eguna ospatuko da Soraluzen. Bertan, Debagoieneko eta Soraluzeko trikitilari eta panderojoleak elkartuko gara, guztira 400 bat lagun. Egun osoko egitaraua prestatuko dugu eta dei egin nahi diegu gaur egun trikititza edo panderoa jotzen ikasten diharduten eta baita lehenago ikasi duten herritarrei, izena eman eta egun horretan parte har dezaten. Laster, entsaio egunak jakinaraziko ditugu, eguna elkarrekin txukun prestatu ahal izateko.

Fanny Mertzeria
Arropak konpontzen ditugu
Santa Ana 22, beheko - 688 81 53 92

IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Erakitin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 - 649 967 209

Etxabe Harategia

- Etxera eramaten da
- Elikaguzak hartzen dira
- Soraluzeko baserrietako produktuek
- Etxeko trikiti eta txistotak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

Jatorria plazarrera, bertatik bertara

Batzoki

eguziko errasa
andorretan
kama eta arrozak

oparirik gabeko
humborginak
enkango bezeroak

bestia eta
lagun arriko
hotzariak

Erretxatx, 943 75 20 35

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

ARRAIA IZARRA
Etxera eramaten zerbizua
Elikaguzak hartzen ditugu

MERKATU PLAZA - 943 75 24 60

MENDIZABAL
okindegia

Ogja - Prentsa - Gosariak

Asteleheneretik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99

Carpinteria
MANU
Aroztegia

Atariak
Bostakak
Portakak
Sukaldeak
Tokiak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25

Almar

Hezpaindegia
Esterika
Solariama

Gaibiz, 4. beheko
Tel.: 943 75 15 13 - 682 51 14 04

TXURITXU GOZOTEGIA

Asteleheneretik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbatak: 08:30-13:30
Igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, ogja,
prentsa, pastinak,
bontokak...

Etxera eramaten zerbizua

Tel. 943 75 24 43



GREBA
FEMINISTA 8 Martxoak



SORALUZEXO

EMAKUMEOK
GREBARA!

